



## Erremontearen artea ezagutzen, Galarreta Jai Alai “katedralean”

Goi-mailako prestakuntza duten hamar profesional inguruk kirol-disziplina honen sekretuak ezagutu zituzten, Endika Barrenetxea banakako erremonteko txapeldun apartaren eskutik

*2020ko otsaila.* Joan den otsailaren 8an, Gipuzkoa Talentek 2020ko lehenengo jarduera soziokulturala antolatu zuen, Hernanin, sagardoaren kulturaren adierazpenak goia jotzen duen herrian, nahiz eta oraingoan aukera baliatu zen euskal pilotaren toki enblematikoenetako bat ezagutzeko: Galarreta Jai Alai pilotalekua, adituek erremontearen katedraltzat joa.

Endika Barrenetxea erremontista profesionalak frontoiaren eta kirol ikusgarri baino ikusgarri honen historia azaldu zien, hala nola harekin loturiko sekretu guztiak, artisautza, zer sentitzen den jokalekuan sartu eta bertan jokatzean... Bukatzeko, zesta eta pilota batekin praktikatu zuten pilotalekuan bertan.

Jarduera honetaz gozatu zuten profesionalak Alemania, Iran eta Indiakoak dira, hala nola Estatuko gainerakokoak, eta Euskadira itzulitakoak ere tartean izan ziren. Denek garantzen dute

beren lan-jarduera erakunde hauetako batean: CAF, CEIT, CIC nanoGUNE, Lortek, Polymat, EHU eta Vicomtech.